



Vol. I. Glaukoma

Bonberenea Ekintzak, 2012.

Iraupena: 2'19". Biniloa, CDa: 10 euro.

CDa: 8 euro, 2012.

Reggaea, rapa, eta gozatzera!

AZKEN ALDIAN ezagutu dudan talde interesgarrienetako bat da Glaukoma. Reggae eta rap musika estiloak modu naturalean nahasten ditu. Modu sinple batean, erraz, zuzen, freskotasun handiz eta batera lotsarik gabe. Bere doinuek kutsatuta, gorputza berehala mugitzen hasten zaigu, alai. Ongi pasatzen ari garela konturatzen gara *Vol.1* diskoa entzunez gero, eta, are gehiago, beren jendaurreko emanaldiren batean baldin bagaude.

Doinuak eta erritmoak ederki lotzen dituzte, gehiegizko apaindurarik gabe eta soberan egon litezkeen xehetasunetan galdu gabe. Taldekideen etorria handia baita. Emanaldietan eroso aritzen dira, umorez, eta kantuak jotzen ederki pasatzen ari direla transmititzen dute. Gozatzera ateratzen direla nabarmena da.

CD eta LP euskarrietan kaleratu dute beren lehen disko luzea. Zazpi abestiz osaturik dago. Reggaea eta rapa nagusi dira kantuetan, eta dancehall, raggamuffin eta roots ukituak ere suma daitezke. «Azal zuridun beltzak» baitira Glaukomako partaideak, haien hitzetan: «Reggaea da erregina eta rapa erregea». Besteak beste, Damian Marley, Alborosie eta Bad Sound System taldeak atsegin dituzte, Glaukomakoek beraiek aitortuta.

Euskaraz, ingelesez eta gazteleraz mintzatzen dira kantuetan. Hiru hizkuntzak erraz nahasten dituzte hitzetan eta errimetan, naturaltasunez. Aldarria transmititzen dute kantu batzuetan, eta beste batzuetan haien barrura begiratu eta kezketan, sentipenetan eta emozioetan murgiltzen dira. «Zerbait baliagarria» esaten saiatzen dira, «txorakeriarik» esan gabe. Tradizioak, sexuen arteko desber-

dintasunak, marihuana, komunikabideak eta beste hainbat gairen inguruan mintzo dira.

Tolosan (Gipuzkoa) sortu eta garatzen ari den taldea da Glaukoma. 2010eko maiatzaren 15ean egin zuten beren lehen jendaurreko saioa, Tolosako Otsabi elkartearen. *Vol.1* diskoa kaleratu aurretik, hainbat jendaurreko emanaldi egin dituzte, eta baita grabazio batzuk ere: Tolosako Izaskun auzoko festetako abestia, eta *Sputnik 11* bildumako bi kantu.

Tolosakoak, Donostiakoak eta Irungoak dira Glaukoma taldeko kideak. Gazteak, hogeita gutxi urte besterik ez baitituzte. Pablo Rubio (bateria) irundarra da, Jokin Albisua eta Iker Pando gitarra jotzaileak donostiarrak dira, eta Asier Arandia (baxua) eta Juantxo Arakama (ahotsa) tolosarrak.

Bi gitarra, baxu bat, bateria bat eta ahotsa besterik ez dute behar kantuak ederki jotzeko, nahiz eta hainbat saiotan Ibarako (Gipuzkoa) lagun bat, Jon Altuna (Lain, Dolce & Tangana) haiekin aritzen den teklatuak jotzen. Jon Altuna bera diskoaren grabazioan aritu da, eta Glaukomakoen beste hainbat lagun ere bai: Roman Goenaga (ahotsa), Aitzol Moreno (tronboia), Ander Altuna (tronpeta), Xabier Beldarrain (perkusioa), Miguel Telleria (ahotsa), Xabier Garcia (txilibitua) eta Stepi Selekta (*Not paradise* kantuenaren musika konposatzen lagundu die).

Karlos Osinaga arduratu da grabazioaz, nahaskeitez eta masterizazioaz, eta oso lan txukuna egin du, kantuak garbi, ozen eta gozo-gozo entzuten baitira. ■

Joxi Ubeda



Emel Mathlouthi kantari tunisiarrak kontzertua eskainiko du Bilbon

Zentsura at! jaialdiko azken kontzertua eskainiko du Emel Mathlouthi, azaroaren 18an, Bilboko BBK Aretoan, 20:00etan.

"Jende libreak gara, ez gara beldurtzen. Inoiz hilko ez diren sekretuak gara. Tinko eusten dietenen ahotsa gara" dio bere abestirik enblematikoenak, Kelmti Horra (nire ahotsa libre da)

deiturikoak. Pariseko Bastilla plazan entzun zen lehen aldiz, 2007an, eta Ben Ali agintetik kendu zuen mungimenduak himnotzat hartu zuen gerora. "Jazminen iraultzaren ahotsa" deitu izan zaio Emel Mathlouthiri. Musika arabiarrak, rocka eta hip hopa nahasten dituzte bere doinuek, eta bere ahotsak hipnotizatu egiten duela diote askok.



Emel Mathlouthi